# BPXport-en Fitxatzaile Programa

Langileentzako erabilera argibideak

# Funtzionamendua

## Programaren funtzionamendua

Programa honek gure karguan dauden langile bakoitzaren Orduen Erregistroa sortzea ahalbidetuko digu, papereko erregistroaren erabilera ezabatuz, eta enpresako arduradunek, koordinatzaileek eta langileek momenturo sarbidea izango duten hileroko dokumentuak sortuko ditu.

Programa hau BPXporten Kudeaketa Programari lotua dago, beraz, bi aplikazioetan sarbideko erabiltzaile eta pasahitza berdina izango dira.

Enpresako langile guztiek nahitaez erabili beharko dute.

Langileak programan bere fitxaketak sartu eta gordeko ditu. Langileen arduradunak izango dira langileek sartutako fitxaketak balioztatu eta/edo aldatuko dituztenak. Balioztatuak izan ondoren ezingo da inongo aldaketarik egin eta hil bakoitzaren 5ean, automatikoki, soilik balioztatuak izan diren fitxaketak jasoko dituen dokumentuak sortuko dira.

Arduradunek, langileen hileko fitxaketak lan egindako orduen albaranekin alderatu eta zentralera bidal ditzaten (nominak egiteko), langileek hilabeteko fitxaketak hil bakoitzaren 20a baino lehen sartu beharko dituzte. Fitxaketak hilaren edozein egunetan erregistratu daitezke (ez da beharrezkoa egunez egun betetzen joatea).

Langileek hilaren 20an jakinarazpen mezu bat jasoko dute helbide elektronikoan.

# Fitxatzailea

# 1 Sarbidea




1) fichador.bpxport.es –ra sartu
2) Egokitutako erabiltzaile eta pasahitza idatzi

BPXport

# 2 Fitxaketak




1 Egutegian data aukeratu
2 Zerrenda zabalgarriak Zentroa aukeratu
3 Sarbide Ordua eta Irtete Ordua zehaztu
4 Fitxaketa gorde
5 Fitxaketa berri bat sartu behar denean (adb.: lanaldi partzialeko langileak), "Beste fitxaketa bat gehitu" sakatu eta aurreko pausu berdinak jarraitu.
6 Fitxaketa gaizki sartu bada, Xa sakatuz ezabatu daiteke eta ondoren Gorde sakatu

Bajan egotekotan, "Laneko baja" laukitxoa markatu beharko da eta egun horretako lan egin beharreko ordutegia ez da zehaztuko.

# 3 Erregistroa

“Erregistroa” menuan balioztatutako fitxaketen historikoa kontsultatu daiteke




Pantaila hau soilik kontsulta eta bilaketetarako erabiliko da. Bilaketa zehatza egiteko, zutabeetako datuak filtratu daitezke.

# 5 Dokumentuak

Atal honetan, sortutako Orduen Erregistro Dokumentu guztiak kontsultatu daitezke.

